

## 1. BEZEROEKIN HARREMANAK:

Bezeroekin dugun harremana gure proiekturako oso garrantzitsua da, edozein enpresa berri batek arrakasta edukitzeko gakoa bezeroekin harreman on eta estable bat edukitzea da, horrela iradokizunen bidez beraien kezka edo hobetzeko puntuak jakin ditzazkegu hostelaren funtzionamendu hoebago bat lortzeko.

Gure enpresan bezeroekin harremana mantentzen saiatuko gara, lehen esan bezala iritzi kritiko bat eduki nahi dugulako. Horretarako, webgune bat sortuko dugu erreserbak egin dezaketen leku bat edukitzeko online bidez, hostelari burzuko informazioa, abantailak eta deskribapena jasotzeko eta webgorri horren barruan iradokizunak egiteko aukera emango dugu. Horrez gain, hosteleko harreran ere iradokizun kaxa bat utziko dugu kexa edo edozein motako komentarioak uzteko anonimoki. Metodo honek hobekuntza eta aldaketa nabarmenak egitera lagunduko gaitu denon onerako, bezeroek eskaintza hobea edukiz.

Bestalde, begibistakoa denez, bezeroak errespetuz tratatuko ditugu. Gure hostelean gelditzen diren pertsona, bikote eta familiei bikain tratatuko diegu edozein momentutan egongo baikara haien galderak, eskaerak eta beharrak asetzeko. Ildo beretik, tratu horretan hizkuntza formal bat erabiliko dugu bezeroa ahal den erosoan egoteko.

